

Antzerkia eskolara gonbidatzen da!

Donibane Lohizunen, euskarako antzerkiak beti ukan du bere lekua. Antzeztan segitu egin dira ikasturtez ikasturte. Aurten istorio ezberdinak taularatuko dira eta urte bukaeran aurkeztuko. CPTik CM2ra bitarteko ikasle elebidun guziek David Ondarts-ek proposatutako saioetan parte hartuko dute beren gelek. Duela aste batzuk

lehen kurtsoak ukan zituzten. Egitarauan, espazioan kokatzen, bere ahotsa erabiltzen, emozioak interpretatzen, memorizatzen edota, besterik gabe, jolasten ikasteko tailerrak. Eszenak eta koadro bidezkoak plantan ezarritik, ikasleek beren irudimena garatzen dute, bai keinuetan, bai adierazpenetan. Lehen saioak egin diren honetan, antzerki obraren hautua marrazten ari dela dirudi. Gela bakoitzak istorio bat ezagutu ahal izango

du, eta ikasleek, beren pertsonaien larrura itzuli ahal izango dute. Euskaraz partekatutako une ederrak promesarekin, errepikak has daitezela!

Donibane Lohizuneko Urkijo eskola



Euskal dantza eta Korrika Ttipi

Euskal dantza emanaldia

Lehen aldikoz, San Bixente eskolan euskal dantza emanaldia antolatua izan da pasa den martxoaren 20an. Ikasle elebidun guziek proiektuan parte hartu zuten, bakoitzak bere dantzak prestatuz. Agintariena, Zazpi jauziak, Txotxongilo eta Sorgin dantza, adin guzietako haurrek eskolako jostaleku betearen aurkeztu dute periodo oso baten lana. Burasok beren haurrak txalotzeko aukera paregabea ukan zuten. Miles-ker handi bat Maitane dantza erakasleari!

Korrika Ttipi Hendaian ere!

Martxoaren 27an, hiriko ikasle elebidun guziak gonbidatuak izan dira ekitaldi koloretsu honetan parte hartzera. Handienek zuten hasiera eman Ikastolako aparkalekutik. Ibilbidean zehar, besteek loditu zuten pelotoia eta ama eskolakoek azken zatian eraman zuten lekukoa. Esfortzua- ren ondotik, errekupeazioarena dator, bixkotx, fruitu eta ura partekatze momentua iritsi zen. Jandirik 25. edizioaren zain gaude!

Hendaiaiko San Bixente eskolako CM-ko ikasleak



Korrika

Martxoaren 24an, asteartearekin, Korrika gure herritik pasatu da. Eskolan, Korrika aipatu eta landu dugu, kantua eta dantza gelan ikusi ditugu. Plazer handiarekin, lagun eta erakasleekin parte hartu dugu ekitaldi hortan. Arratsaldeko 16:00etan Larresoroko zentroan elgarretaratu gira eta gure kilometroa egin dugu lasterka. Giro biziki ona zen, jende anitz hurbildu da mementu goxo

horren bizitzeko. Gure lagun batek lekukoa hartu du eta guk gibeletik segitu dugu. Biziki kontent ginen lasterka egitea euskara gure hizkuntza sustengatzeko. Espero dugu 2 urteren buruan Korrika berriz gure herrira jinen dela!

Dona Martineko eskola



Alegiak agertokian

Bi urtero behin, San Josep eskolako ikasle elebidunek antzerki proiektua prestatzen dugu. Irailetik urtarilera, ama eskolako ikasle artekoek eta handiek, CP / CE1 / CE2 / CM1 / CM2ko ikasleek alegiak klasean irakurri ditugu. Aldi oro, irakaspena atzematen saiatu gira. Alegia batzuk hautatu ditugu, gure aurtengo proiektua lantzeko. Urtarilean, Estibx eragilea gurekin lana segitzeko eskolara jin da. Lehen saioetan, jolas moduan egin ditugu arketak. Iringarria zen! Baina gero, hasi gira testuak idazten, eta hori, dirudiena baino zailagoa da! Testu baten idazkera lan handia da! Rolak ere banatu ditugu. Animale anitz badira gure istorioetan: lehoiak, txoriak, untxiak, arratoiak, oiloak... Idazkera lana bukatu eta gero, testuak ikasi beharko ditugu baita

antzezten ere. Oraino lan anitz badugu egiteko. Ama eskolako ttipiak bezala, alegiei buruzko kantuak ikasten ari baitira. Maiatzean, Senpereko Larreko gelara joanen gira denak, elkarrekin errepikatzen. Errepika orokorra pixka bat estresagarria da, egiazko agertokian girelako. Baina zer plazera! Prest izanen girelarik, ikusgarria gure familiei erakutsiko diegu.

Senpereko eskola



Dantza proiektu ederra Ortzaizen

Aurten, Ortzaizeko Herriko Etxeak kultur proiektua antolatatu du herriko hiru eskolen artean. Proiektuaren gaiak ihauteriak eta euskal dantza tradizionalak izan dira. Ama eskolatik CM2 arteko ikasle guzietan euskal kulturaren zati inportante bat ezagutzeko aukera ukan dute, euskal dantzak ikasiz. San Mixel eskolak ere parte hartu du proiektu polit honetan, eta haurrek esperientzia artistiko eta kolektibo aberasgarria bizi izan dute.

Proiektu honentzat, dantza irakasle bat eskolara etorri da astero, haurrei dantzak erakusteko. Lehen mailako haurrek hiru dantza ikasi dituzte, alki dantza adibidez, eta ama eskolako haurrek bi dantza prestatu dituzte. Pixkanaka, denek ikasi dute musikaren erritmoa segitzen eta kadentzian desfilatzen. Lan horren bukaeran, bakantzak aitzin izan den azken ostiralean, desfile eta ikusgarria egin dira herriko plazan. Familiak eta herriarrek ikusirik, haurrek harrotasunez erakutsi dute aste hauetan ikasi dutena.

Proiektu honek haurrei euskal kultura hobeki ezagutzeko aukera eman die, eta aldi berean, elgarre-

kin ikasteko eta momentu ederra partekatze aukera ere bai.

Ortzaizeko San Mixel eskola

